

KANALAK

Gure bezeroengana produktua zabaltzeko eta gure helburua lortu nahian komunikazio kanal egokiena interneta, hain zuzen ere, webgune bat dela erabaki dugu. Webgunea denon artean sortuko dugu eta bertan hainbat atal bereiztuko ditugu: gure taldearen biografia, gure hastapenak, proiektua, eta zalantzak argitzekoa ere. Gurekin harremanetan jartzeko aukerak ere bertan egongo dira oso garrantzitsuak baita bezeroekin harremana mantentzea.



Garrantzitsuenak, produktua lortzeko eta bezeroenganaino heltzeko on line denda izango da, bertan gure bezeroek produktua eskuratu ahal izango dute, kolorea aukeratu, bezeroaren datuak, bidalketarako helbidea bidalketa mota, eta ordainketa mota.

Behin bezeroak produktuaren eskaria burutzean, eta behar diren datuak finkatutakoan produktuaren banaketari ekingo genioke. Produktuaren entrega posta bidez egingo genuke, eta garraio enpresa baten bitartez.



Eskaria egiten den unetik bezeroa produktuaren egoeraz jakinaren gainean egongo da une oro. Eta edozein arazo suertatzen bada gurekin kontaktuan jar daiteke arazo hori konpon dadin.

Lehen esan dugun bezala produktua posta bidez eta garraio enpresen bitartez helduko da bezeroenganaino, denbora txikian eta egoera ezin hobean. Etxeraino eramango genieke edo beraiek nahiago badute produktua beraiek nahi duten puntu edo helbidean utziko genuke.

